

Organo Zikloak 13 kontzertu eskainiko ditu Gipuzkoako hainbat elizatan

Donostiaz gainera, Usurbil, Azpeitia, Zumaia, Tolosa, Azkoitia eta Debara helduko da.

Hitzordu guztiak doakoak izango dira, baina ezinbestekoa izango da aldez aurretik gonbidapena jasotzea.

Donostiako Musika Hamabostaldiaren **Organo Zikloa abuztuaren 2tik 9ra** bitartean gauzatuko da. Bidaiaria eta oparoa da jaialdiaren zikloa, inondik ere, eta ohi bezala, Donostian eskainiko diren kontzertuez gainera, Gipuzkoako herri zenbaitetara bertaratu da, lurraldearen organo ondare aberatsa ezagutzera emateko helburuari jarraiki. Izan ere, aipatu instrumentua ezagutzeko aukera paregabea eskainiko baitigu zikloak beste behin ere. Nabarmentzekoak dira, esaterako, Donostiako Koruko Andre Mariaren Basilikaren eta San Bizente eta San Inazio elizen organo erromantikoak (Cavaillé-Coll, Stoltz-Frères, Mutin eta Walcker), Tolosako Andre Mari Elizaren organoa (Stoltz-Frères) edota Debako organo garaikidea (Grenzing).

Urtetik urtera 4500 entzuletik gora biltzen dituen zikloak **programa zabala** eskainiko du Donostiako egoitzetan, eta, betiko legez, Gipuzkoako hamaika tokitara helduko da, aurten, Usurbil, Azpeitia, Zumaia, Tolosa, Azkoitia eta Debara, hain justu. Organista entzutetsuak ariko dira aurtengo programan, esate baterako Castellóko Juan de la Rubia (abuztuak 3 eta 5), eta, bertakoei dagokienez, Óscar Candendo (abuztuak 5), Loreto Fernández Imaz (abuztuak 2 eta 4), Alize Mendizabal (abuztuak 4 eta 7), Ana Belén García (abuztuak 6) eta Loreto Aramendi (abuztuak 6 eta 9), musikari aski ezagunak Hamabostaldiaren ziklo honen jarraitzaileentzat.

Zikloak biltzen dituen **13 kontzertuetatik** batzuk organo soileko emanaldiak izango dira, eta orobat bestelako proposamenak entzuteko parada izango da: organoaren eta beste instrumentu nahiz ahotsaren arteko fusio hitzordu interesgarri eta ezohikoak, hainbat artisten esku hartzearekin, hala nola Ainhoa Zubillaga mezzosopranoa, Garikoitz Mendizabal txistularia, Larraitz Oiartzabal biolinista, Easo Emakumeen Abesbatza, Lucía Gómez mezzosopranoa edo Pablo Mezzelani instrumentista multietnikoa.

Aurten ere, kontzertuak ospatuko diren herrietako udalen babesa izango dute kontzertuetako batzuek.

Bestalde, gogoratu Organoko kontzertu guztiak **doakoak** izango direla, baina ezinbestekoa izango dela aldez aurretik **gonbidapena** jasotzea.

Honako kontzertuek osatzen dute Musika Hamabostaldiaren **Organo Zikloa**:

Ainhoa Zubillaga / Loreto Fernández Imaz – abuztuak 2, 20:00 – Salbatore Eliza (Usurbil)

Organo Zikloa zabaltzen duen lehen kontzertuak ospakizuna dakar, Usurbilgo Cavaillé-Coll / Mutin organoa Salbatore Elizan jarri zutenaren mendeurrena. Ainhoa Zubillaga mezzosopranoak eta Loreto Fernández Imaz organistak bat egingo dute musikagile barroko, erromantiko, inpresionista eta garaikideak jasotzen dituen errezital honetan. Halaber, mezzosopranorako errepertorioaren pasarte ezagun biri tarte egingo diete: Gabriel Fauréren bi mélodie frantses –*Après un rêve* eta *Rêve d'amour* ospetsua– hain zuzen ere, eta baita Aita Donostia, Pablo Sorozabal eta Jesús Guridiren lan batzuei ere. Horrez gain, Couperin, Vierre eta Messiaen-en partiturak joko ditu Loreto Fernández Imaz-ek bakarka.

Loli Oteiza / Itziar Urbietza – abuztuak 2, 20:00 – Loiolako Santutegia (Azpeitia)

Hiru organista azpeitiar hauen kontzertuak agerian uzten du herri honek organoaren munduarekin daukan lotura berezia. Ukaezinak dira Loiolako Santutegiaren Cavaillé-Coll organo ospetsuaren kalitatea, musikagile azpeitiar askok organorako sortutako partituren garrantzia, edota bertako organo enpresek historian zehar izandako ibilbide oparoa. Programa osatzeko Mendelssohn, Demessieux, Langlais eta Arvo Part-en musika hautatu dute.

Juan de la Rubia / Mikel Ansola – abuztuak 3, 20:00 – Artzain Onaren Katedrala

Oraina eta geroa Artzain Onaren Katedralaren organo neoklasikoaren aurrean. 20 urteko Mikel Ansola musikari bizkaitarrak ekingo dio emanaldiari Mendelssohn eta Reger-en lanak aurkeztuz. Ondoren, Juan de la Rubia jardungo da, Bartzelonako Sagrada Familia tenpluko titularra, Estatuko organista ospetsuenetakoa egun. Eustache du Caurroy, Mendelssohn eta Saint-Saënsen lanez osaturiko egitaraua eskainiko du.

Garikoitz Mendizabal / Mari Karmen Azpeitia – abuztuak 3, 20:30 – San Pedro Eliza (Zumaia)

Garikoitz Mendizabal txistularia, instrumentu honen zabaltzailerik handienetakoak eta Mari Karmen Azpeitia, eliza horretako organistak, programa erakargarri eta anitza aukeratu dute, zeinetan, tarteka, Stoltz-Frères organoaren doinuak eta txistuarenak uztartuko dituzten. José M^a Beobide musikagile zumaiarraren *Andante* interpretatuko dute, bere doinu sentiberagatik ezaguna den lana. Callaerts eta Rivas-en partituraz gain, Tomás Garbizu, Aitor Uria eta Pepe Yanci gipuzkoarren sorkuntzak izango dira entzungai. Horiekin batera, jatorri libanesa duen Naji Hakim musikagile frantziarraren partitura bat joko dute.

Ainhoa Zubillaga / Loreto Fernández Imaz – abuztuak 4, 20:00 – San Bizente Eliza

Zikloari irekiera emateko hautatutako programa bera eskainiko dute Donostian Ainhoa Zubillaga mezzosopranoak eta Loreto Fernández Imaz organistak, musikagile barroko, erromantiko, inpresionista eta garaikideak jasotzen dituen errezitala, alegia. Mezzosopranorako errepertorioaren pasarte ezagun biri tarte

egingo diete: Gabriel Fauréren bi *mélodie* frantses –*Après un rêve* eta *Rêve d'amour* ospetsua– hain zuzen ere, eta baita Aita Donostia, Pablo Sorozabal eta Jesús Guridiren lan batzuei ere. Horrez gain, Couperin, Vierne eta Messiaen-en partiturak joko ditu Loreto Fernández Imaz-ek bakarka, oraingoan estilo erromantiko/sinfonikoko eliza honetako Cavallé-Coll organoan.

Lucía Gómez / Alize Mendizabal – abuztuak 4, 20:00 – Andre Mari Eliza (Tolosa)

Ahotsa eta organoaren doinuak batzen dituen proposamena hartuko du Tolosak. Lucía Gómez mezzosopranoak eta Alize Mendizabal, Donostiako Koruko Andre Mariaren Basilikaren organista titularrak, Beethoven izan dute gogoan beren programan, musikagile honen jaiotzaren 250. urteurrenean. Gainera, Bach, Vivaldi, Gounod eta Widor-en musika entzun ahal izango da Tolosako Andre Mari Elizako Stoltz-Frères organo erromantikoa. Nabarmentzekoa da, Tolosakoa jatorrizko itxura gordetzen duen organo-etxe frantziar horren musika-tresna bakarrenetakoa dela Europan.

Óscar Candendo – abuztuak 5, 20:00 – Artzain Onaren Katedrala

Donostiako Artzain Onaren Katedralaren organo neoklasikoaren organista titularra izatearekin batera, Óscar Candendo irakasle jarduten da Kataluniako Goi-Mailako Musika Eskolan. *Tríptico del Buen Pastor* obra interpretatuko du; lan honekin, hain justu, Jesús Guridik Artzain Onaren organoa inauguratzeko antolatutako lehiaketa irabazi zuen. Kontzertua osatzeko, Torres, Aita Donostia eta Guilmant-en lanak eskainiko ditu Candendok.

Juan de la Rubia – abuztuak 5, 20:00 – Andra Mari Eliza (Azkoitia)

Bere belaunaldiko musikari bikainetakotzat hartzen da Juan de la Rubia, egun Bartzelonako Sagrada Familia tenpluko organista titularra. Azkoitiara dator Stuttgart-eko Goi-Mailako Musika Eskolan lankidetzan aritu ostean (Alemaniako eskola hau organoa irakasten duen eskola entzutetsuenetakoa da Europa mailan). Ederki ezagutzen du Azkoitiako Cavallé-Coll organoa, eta bertan landuko ditu Bach, Saint-Saëns, Gigout, Vierne eta Widor-en partiturak.

Larraitz Oiartzabal / Ana Belén García – abuztuak 6, 20:00 – San Inazio Eliza

Interesgarria eta ezohikoa gertatuko da, zalantzarik gabe, Larraitz Oiartzabal biolinistak eta Ana Belén García, Donostiako Koruko Andre Mariaren Basilikaren organista titularrak eskainiko duten uztarketa. San Inazio Elizako Walcker organo erromantikoaren soinuaren edertasuna eta biolinaren hotsak bat egingo dute Bach, Rheinberger eta Hakim musikagileen sakotasunera heltzeko.

Pablo Mezzelani / Pedro Aguinaga / Loreto Aramendi – abuztuak 6, 20:30 – Andre Mari Eliza (Deba)

Proposamen bitxia dakar Pablo Mezzelani (musika-tresna multietnikoak), Pedro Aguinaga (biolina) eta Loreto Aramendi (organoa) musikariek osatzen duten hirukoteak. Programa eklektikoa aurkeztuko dute, *Vientos y Piedras* izenburua ere daramana. Batetik, Buxtehude, Nebra, Jiménez, Distler eta Martín i Coll egileen musika jorratuko dute, eta bestetik, instrumentu multietnikoak bitarteko, Armenia, Bolivia eta Afganistaneko doinuak ezagutzeko beta izango da.

Lucía Gómez / Alize Mendizabal – abuztuak 7, 20:00 – San Bizente Eliza

Lucía Gómez mezzosopranoaren eta Alize Mendizabal organistaren bigarren hitzordua izango da honakoa. Oraingoan, Donostiako Koruko Andre Mariaren Basilikaren organista titularrak, Alize Mendizabalek, emanaldia eskainiko du beste Cavaillé-Coll batean, San Bizente Elizaren organoan. Beethovenen jaiotzaren 250. urteurrena dela eta, bi artista hauek aipatu musikagilearen lanak gehitu dituzte programa honetan. Halaber, Bach, Vivaldi, Gounod eta Widor-en lanak entzun ahal izango dira.

Easo Emakumeen Abesbatza / Easo Kapera Gregorianista / Ana Belén García – abuztuak 8, 20:30 – San Bizente Eliza

Easo Emakumeen Abesbatzak eta Easo Kapera Gregorianistak beren ahotsen indarra batuko dute San Bizente Elizaren organoari kontraste musikala eta espirituala emateko. Ana Belén García, Koruko Andre Mariaren Basilikaren organista titularra, Donostian dagoen beste Cavaillé-Coll baten aurrean eseriko da, San Bizente Elizaren organoan, etxe frantses ospetsu horrek 1868an eraikitakoan. Alain, Ropartz eta Poulenc-en partiturak ez ezik, kantu gregorianoa ere eskainiko dute.

Pablo Mezzelani / Pedro Aguinaga / Loreto Aramendi – abuztuak 9, 20:00 – Salvatore Eliza (Usurbil)

Organo Zikloari amaiera emango dion emanaldia Usurbilgo Cavaillé-Coll / Mutin organoa Salvatore Elizan jarri zutenaren mendeurrena ospatzeko egingo den bigarren kontzertua izango da. Pablo Mezzelani (musika-tresna multietnikoak), Pedro Aguinaga (biolina) eta Loreto Aramendi (organoa) musikariek proposamen anitza dakarte. Hasteko, C. Franck, Duruflé eta Liszt-en lanak interpretatuko dituzte. Ondoren, *Vientos y Piedras* izenburua daraman programan, berriz, Armenia, Bolivia, Afganistan, Argentina eta Bulgariako doinuak helaraziko dituzte.